

Aurkezpena


# 2017 BAROMETROA

---



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración



EMAN BEHUKA ERREKATU  
POLITIKARIEN SAILA  
Gobernuko Errekinen Departamentua  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
Departamentuaren Errekinen  
z/Departamentuaren



Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# Fitxa teknikoa


- Landa-lana 2017ko martxotik apirilera artean egin zen.
- Egindako inkestak: 600 (NC = % 95, sigma = 1,96, eta Akatsa= % +/- 4).
- Inkesta pertsonala etxean egin zaie, 18 urtetik gorakoei.
- Laginketa “esleipen proportzionalaren bidez” estratifikatu da, habitataren tamainaren kuoten, adinaren eta sexuaren arabera.
- Etxeen hautaketa: ausazko ibilbideen sistema.
- 25 udalerritan (Arabako 3, Gipuzkoako 10 eta Bizkaiko 12) banatutako 39 laginketa-puntu.

# 1


Arazoaren pertzepzioa eta bolumena

Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak?

(Gehienez ere 3 erantzun)




Erantzuna: Immigrazioa




- Lehen aipamenean, euskal herritarren % 1,2k hartzen du immigrazioa arazo pertsonaltzat. Aipamen guztiak kontuan hartuta, euskal herritarren % 5,2k soilik hartzen du immigrazioa arazo pertsonaltzat.
- 2016. urtearen aldean, ehuneko hori % 8,5etik % 5,2ra jaitsi da.
- Eragin pertsonalari dagokionez, gehien aipatutako arazoak langabezia (% 48,5) eta ekonomiarekin lotutako auziak (% 34,9) dira.

Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik zenbat dira, zure ustez, atzerriko etorkinak (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)? (%). 2007-2017




- 2016. urtean, Euskadin erroldatutako jatorri atzeritarreko biztanleria 0,3 puntu hazi da.
- Euskadin bizi diren etorkinen kopuruaren pertzepzioa % 16,8tik % 20,3ra handitu da.

Atzerritar jatorrizko biztanleen bolumenaren pertzepzioa erroldatutako atzerritar jatorriko pertsonen benetako zifraren bolumenaren berri eman ondoren. 2007-2017



- 2012tik 2015era areagotu egin zen Euskadin atzerritar jatorriko immigranteak gehiegi zirela uste zuten pertsonen kopurua.
- 2015etik 2016ra artean, zifra horrek dezente egin zuen behera % 22,3tik % 14,5era. Orain, ordea, berriro egin du gora, baina ez hein berean, % 16,6ra iritsi arte.

Hurrengo bost urteetako egoerari begira, immigrazioak EAEn, zure ustez...?




- Euskal biztanleen erdiek baino gehiagok uste dute hurrengo bost urteetan immigrazioa hazi egingo dela Euskadin (% 54,5).

# 2

## Lanaren funtzionaltasuna




Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko:




- Lan-merkatuari dagokionez immigrazioaren ikuspegi funtzional eta utilitarista, hau da, lan-merkatura ondo egokitzea, nabarmen apaldu zen krisiaren eraginarekin. Adibidez, 2009an iritzi hori zuten pertsonak % 55,9 izatetik 2014an % 30,5 izatera jaitsi ziren.
- Dena den, zenbait gorabeherarekin, 2015etik aurrera badirudi ikuspegi utilitarista horrek gora egin duela, % 41,4ra iritsi arte.

Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako:



- Antzeko zerbait gertatu da baieztapen honekin "ekonomiak hobeto funtzionatzen du immigranteak bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzeari esker". 2004an % 63 zegoen baieztapen horrekin ados. 2017an, % 45,9 dira ados daudenak.
- 2004tik 2017ra artean, berriz, ideia hori ukatzen dutenen kopurua % 17tik % 34,7ra handitu da. Krisiak eragin handien izan zuen urteetan, % 40k baino gehiagok ukatzen zuen ideia hori.
- Azken batean, badirudi immigrazioaren ikuspegi funtzional eta utilitaristago batera –hots, krisi aurreko garaian nagusi zenaren antzeko ikuspegi batera– itzultzeko joera sendotzen ari dela.

Etorkinek lana kentzen digute:




- Gero eta gutxiago dira etorkinek lana kentzen digutela uste dutenak. Azken urtean, beherakada hori are nabarmenagoa da (-7,7 puntu).
- Nolabait, esan genezake enplegurik ezaren eta bertakoen enpleguaren erantzukizuna ez zaiela etorkinei egozten.

# 3

## Elkarbizitza eta tolerantzia


Zure ustez, EAEn, bertako eta atzerriko biztanleen arteko harremanek hobera egin dute azken urtean, okerrera egin dute, ala berdin daude?



- Orokorrean, euskal biztanleriak uste du atzeritar biztanleekin duten harremana ez dela aldatu azken urtean (% 70,9).
- Edonola ere, gehixeago dira hobetu dela uste dutenak (% 12,7) okerrera egin duela uste dutenak baino (% 10,8).
- Erlazioak bere horretan jarraitzen duela uste dutenen kopurua ia berbera da, baina beherakada txiki bat izan du 2016ko datuen aldean (% 1,4).

Orokorrean hartuta, zure ustez, atzerriko pertsonak etortzeak, ondorio positiboak edo negatiboak eragiten dizkio euskal gizarteari?

*Otik (oso ondorio negatiboak) 10erako (oso ondorio positiboak) puntuazioa.*




- 2017an, eraginei buruzko puntuazioak behera egin du apur bat, eta, justu-justu nahiko batekin, 2016ko 5,2tik 2017ko 5,1era jaitsi da.
- Datu horiek berretsi egiten dute azken hiru urteetan etorkinen ekarpen orokorrari buruzko ikuspegi apur bat optimistagoa sortzen ari dela.
- Dena den, iritzi horrek oso egonkor jarraitzen du denboran zehar; aldaketa txiki batzuekin bada ere, gizarte-aldaketen isla da, eta euskal biztanleria anbibalentea da immigrazioaren eraginei dagokienez.

# 4


## Kultur-aniztasunaren kudeaketa

Kultur ereduak:

**Jatetxe exotikoak irekitzea**




**Haien dendak irekitzea**



- Beste kultura batzuetako jatetxeak edo saltokiak irekitzeak dakarren kultur aniztasuna oso ondo ikusia dago euskal gizartean: guztizkoaren % 60 inguruan kokatzen da, serie historiko osoan.
- Kultur-alderdi exotiko eta azalekoenak dute, ziur asko, ospe handiagoa, sakonenek baino.



Euskadin bizikidetza hobetzeko zenbait aukera emango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:



- % 83,5k pentsatzen du immigranteak ahalegindu behar direla bertakoen ohitura eta tradizioetara egokitzen.
- % 75,2k dio atzerritar immigranteek eta bertakoek elkarrekin ahalegindu behar dutela. 2016an ehuneko hori pixka bat baxuagoa zen (% 72,8).
- % 67,9k aitortzen du onarpen osoa izateko tokiko legediarekin gatazkan dauden erlijioeko edo kulturako alderdiei uko egin behar zaiela. 2016an baino ia hiru puntu gutxiago.
- % 56,3k uste du bertakoek ez dutela ahaleginik egin behar immigranteen ohitura eta tradizio batzuk ezagutzeko eta horietara ohitzeko. 2016an % 66,3 zuen iritzi hori.

## Tolerantzia-maila: janzkerak

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako janzkera-ohiturak sortzea eragin du. Ohitura horietako batzuei buruz zer iritzi duzun jakin nahi genuke.

Kipa



Hijab




Txador



Nikab




Burka




- Euskadira beste kultura eta erlijio batzuk etortzeari dagokionez, euskal biztanleei janzkerei buruz galdetzean, gehienei ez zaie egokia iruditzen nikaba (% 82,2) eta burka (% 83,5) janztea, eta, hein txikiagoan, txadorra (% 52,7) janztea ere ez.
- Beste janzkera batzuekiko –hala nola hijabarekiko eta kiparekiko – tolerantzia handiagoa dago.

## Begikotasun maila



- Euskal biztanleak begikotasun maila handiagoa dute antz handiagoa duten jatorriekiko. Badirudi bertakoek begikotasun handien dieten kolektiboak bertakoek integratuentzat hartzen dituztenak direla.
- Begikotasun maila txikiena jatorri pakistandarra, errumaniarra eta magrebtarra duten pertsonetikoa da. Azken talde horrek begikotasun maila txikiagoa du urtetik urtera.

Demagun, etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela, etorkin horiek nongoak izatea nahiko zenuke lehenik? Eta bigarrenik? Eta hirugarrenik?





- Euskadira etortzen diren etorkinak nongoak izatea nahiko luketen galdetzean, gehienak lehenik eta behin Mendebaldeko Europako alde agertzen dira (% 41,3), eta, gero, Latinoamerikako etorkinen alde (% 26,9).
- Horrekin batera, Otik (erabateko mesfidantza) 10era (erabateko konfiantza) eskala batean, islamak 2,77ko konfiantza-maila du.

# 5

## Eragin sozialak eta estereotipoak


Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:



- Euskal gizartearen % 35k uste du atzerritarren presentziak segurtasunik eza eta delinkuentzia sortzen duela. Ehuneko hori 6,5 puntu jaitsi zen 2015ean. Immigrazioak segurtasun-gabeziarik eta delinkuentziarik eragiten ez duela usten dutenen ehunekoak bere horretan jarraitzen du.
- Halaber, % 37k uste du gero jasotzen dutena baino zerga gutxiago ordaintzen dituztela; aldiz, % 26k aurkakoa uste du. 2016ko datuen aldean, 4,8 puntu egin du behera (% 41,8tik % 37ra).

Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:


*Immigranteak aprobetxatu egiten dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaz, eta bereganatzera iristen dira*



- Immigranteak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaz aprobetxatzen direlako pertzepzioa jaitsi egin da aurreko urteekin alderatuta, eta % 51,6an kokatu da. Hala ere, iritzi hori euskal gizartearen gehiengoarena da.

Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:

*Immigranteak/Immigranteek:*




- Euskal gizartearen estereotipo nabarmenenen artean, gizarte-laguntzen erabilerarekin lotutakoa da zabalduena (% 44,6), eta, gero, etorkinen presentziak matxismoa areagotzen duelako estereotipoa (% 43,2).
- Edonola ere, oro har, 2016ren aldean, aurkezten ditugun gainerako estereotipoek behera egin dutela ikusten da: “gizarte-laguntzetatik bizi dira”, “haien presentziarekin, behera egiten du eskoletako hezkuntza-mailak” eta “lana kentzen digute”.



# 6

## Zerbitzu eta eskubideak

Orain bertakoen zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere baldintza beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?




- Etorkin guztiek eskubide horiek izan beharko lituzkeelako ideiak gora egin du aurreko urtearen aldean, eskubide hauei dagokienez: osasuna, laguntza juridikoa, DSBE, berrelkartzea, babes ofizialeko etxebizitza eta botoa.
- Aurreko urteetako emaitzen ildo beretik, gehienek uste dute pertsona orok izan beharko lukeela hezkuntza (% 75,8) eta osasuna (% 74) jasotzeko eskubidea.
- 2016ko datuen aldean, behera egin du erregulartasunaren eta eskubideak jasotzearen arteko erlazioak, hala nola laguntza juridikoa (-6 puntu), bozkatzeko eskubidea (-6,7), gizarte-laguntzak (-4), babes ofizialeko etxebizitza (-2,3), berrelkartzea (-1,5) eta osasuna (-2,9).

# 7


## Immigrazio politika

Babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena?




- Errefuxiatuen aldeko jarrerak behera egin dute apur bat, 2016ko datuen aldean; % 27k uste du murrizketarik gabe egin behar diegula harrera. 2016an, % 29,8k uste zuen hori. Edonola ere, 2016an markatutako joerak bere horretan dirau.
- % 60k baldintzapean hartu behar direla adierazi dute:
  - 1) benetan jazarpena sufritzen badute (% 40,9) edo
  - 2) kuotei jarraikiz (% 19,1).

## Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokiena atzerritarren kasurako?



- Euskal gizartearen % 18,3 immigranteei sartzeko legezko oztoporik ez jartzearen aldekoa da; aldi berean, % 4,4k uste du bitarteko guztiak jarri behar direla hori galarazteko.
- % 43,4ren aburuz, laneko kontratu bat izatearen truke ireki dakieke sarrera; % 28k, ordea, uste du beste lege-eskakizun batzuk betetzen badituzte utzi ahal zaiela sartzen.
- Nolanahi ere, hainbat galdeketa eta inkestatan ikusi da hau, laneko kontratua behar besteko berme da gizartearen zati handi batentzat, ziurtasuna sortzen eta errezeloak desagerrarazten dituelako eta immigrazioaren ikuspegi utilitarista ziurtatzen duelako.


## Zure iritziz, zer egin beharko luke Gobernuak etorkin “irregularrekin”?



- Euskal gizarteak oraindik ere bata bestearekin erlazionatzen ditu lana eta atzerritar langileen onarpena; hala, lana daukatenak erregularizatzearen (bizileku-baimenak ematea) alde agertzen da (% 42,7). Erlazio hori 2016koaren antzekoa da (% 43,3).
- Halaber, ia bere horretan jarraitzen du denak erregularizatzearen edo denei paperak ematearen aldeko jarrerak (% 23,7). Iaz, gorakada handia izan zuen jarrera horrek (% 17,2tik % 24,5era).

Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:

*Lanera etortzen diren atzeritarrak denboraldi batez langabezian geratuz gero, kanpora bidali beharko lirateke*




- Euskal gizartearen gehiengo zabalak ez du uste langabezian gelditzen diren etorkinak kanporatu behar direnik. Galdera horren bilakaera bat dator egoera ekonomikoaren hobekuntzarekin.

# 8


## Tolerantzia-indizea



## Tolerantzia-indizearen bilakaera



## BPGren urtetik urterako aldaketa-tasak (%) EAEn



- EAEko 2017ko barometroaren tolerantzia-indizea 2016koa baina apur bat apalagoa da, baina, dena den, azken urteetako ildoari jarraituz, konfiantza berreskuratzen jarraitzen du.
- Tolerantziaren beherakada txiki hori bat dator ekonomia-hazkunderan gertatutako mantsotze txikiarekin, eta oraindik indarrean dagoen ideia bat da nolabaiteko paralelismoa dagoela immigrazioarekiko tolerantziaren eta euskal gizarteak etorkizunari heltzeko duen konfiantza- edo ziurtasun-mailaren artean.
- Tolerantzia Indizeak gaur egungo gizartearen egoera islatzen du baita ere, iritzi publikoari dagokionez: amorru txikiagoa, solas politikoan urrunago daude immigrazioari kritikak, eztabaida interesatuak, etab.

Iturria: Eustat

◆ EAE    ■ Eustat

## Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
Emakumezkoak	Sexua	.001	Gizonezkoak
65 urte eta gehiago	Adina	.000	18-44 urte
Ikasketarik ez, bukatu gabeko lehen mailakoak	Ikasketak	.000	Goi-mailako unibertsitate-ikasketak
5000 biztanlerarte	Bizilekua	.014	20.001-150.000 biztanle artean
Katolikoak praktikanteak	Erljioa	.000	Beste erlijio batzuk
Erdaldunak	Hizkuntza	.000	Euskaldunak
Espainiar nazionalista	Abertzaletasuna	.002	Euskal abertzalea, euskal abertzale moderatua eta ezaxola
Batez ere espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	.000	Batez ere euskaldun sentitzen direnak edo euskal-espainiarrak sentitzen direnak
Eskuina eta zentroa	Ideologia	.000	Ezkerra
Hilean 1.000€ gehienez	Diru-sarrerak	.000	Hilean 1.800 € eta gehiago
Bere egoerarekin gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	.000	Bere egoerarekin gustura daudenak
Etxeko lanetan aritzen direnak	Lanbidea	.000	Aktiboak, langabeak eta ikasleak
Estatus baxu eta ertaina	Estatusa	.000	Estatus altua
Ezkorak	Baikortasuna	.000	Baikorrak eta ezaxolak
Aurreikuspen txarrak	Etorkizuna	.000	Aurreikuspen onak
Etorkin ugari	Auzoa	.000	Nahasketa eta bertakoak nagusi
Inolako hartu-emanik ez edo hartu-eman handia	Elkarreragina eremu pribatuan	.005	Nolabaiteko hartu-emana
Inolako hartu-emanik ez	Elkarreragina eremu publikoan	.000	Hartu-eman handia edo nolabaitekoa
Inolako elkarreraginik ez	Elkarreragina aisialdian	.000	Elkarrerahin handia edo nolabaitekoa

## Ondorio nagusiak:

1. Aurreko urteetan bezala, aurkeztutako datuek nabarmentzen dute euskal biztanleek jarrera anbibalentea erakusten dutela atzerriko immigrazioarekiko: euskal biztanleen artean, batzuek jarrera irekiak eta toleranteak dituzte, eta beste batzuek jarrera uzkurragoak.
2. Anbibalentzia besteak beste integrazio-ereduan jartzen da agerian. Edonola ere, nabarmentzekoa da asimilazioaren aldeko jarrerak gora egin dutela. Jarrera horiek sendotu eta ugaritu egin dira azken boladan, nahiz eta beti egon diren.
3. Euskal gizarteak Magrebeko biztanleei die begikotasun gutxien. Horrekin batera, islamarekiko mesfidantza-maila handia da.
4. Gizarte-prestazioei buruzko estereotipoek beren horretan jarraitzen dute. Krisiarekin, pertzepzio horiek indarra hartu zuten; dena den, 2014tik, garrantzia galdu dute, oraindik ere gehiengoak baditu ere.
5. Babesaren auziari bagagozkio, gizartean eta hedabideetan oihartzun handiko gaia, euskal gizarteak jarrera irekia agertzen du.
6. Tolerantzia-indizeak behera egin du apur bat 2017an, baina serie historiko osoko altuenetako bat da oraindik ere (2007tik egiten da).



**Laburbilduz, 2017ko barometroko emaitzak iazko barometrokoaren antzekoak dira, eta krisi osteko jokaleku bat finkatzen ari dela berresten dute, 2015. urtetik aurrera taxutzen hasi zena.**



# ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
*Familia Politikako eta Aniztasuneko  
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
*Dirección de Política Familiar  
y Diversidad*